



**EBAZPENA, 2014KO OTSAILAREN 6KOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO
ZUZENDARIARENA, LAN EGUTEGIAREN BITARTEZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZUKO FUNTZIONARIOENTZAKO LANALDIA
BANATZEN DUENA ETA ORDUTEGIAK FINKATZEN DITUENA**

ZIOEN AZALPENA:

Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 500.4 artikuluan – abenduaren 23ko 18/2003 Lege Organikoak emandako testu berrian– ezarritakoaren arabera, lan-egutegiaren arabera banatuko da lanaldia eta finkatuko da ordutegia, eta lan-egutegia urtero onartu beharko du Justizia Administrazioako Zuzendaritzak Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, betiere Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak aldeko txostena eman ondoren eta Sindikatuekin negoziatu ondoren.

Euskal Autonomia Erkidegoan destinoa duten Justizia Administrazioako Funtzionarioen lanaldia banatu eta horien ordutegiak zehaztu ahal izateak Zuzendaritzak auto-antolakuntzarako duen ahalmenaren adierazgarri da, azken helburua honako hau izanik: unitate eta zerbitzuei esleitutako helburuak modu eraginkorrean eta efizientean betetzeko neurri egokiak ezartzea, herritarrak hobeto artatzea eta zerbitzu publikoek ondo funtziona dezatela

Ildo horretatik, JUS/615/2012 Aginduak (2012ko martxoaren 28ko 75. BOE) Justizia Administrazioako Zerbitzupeko Langile guztien lanaldi orokorraren iraupena arautzen du, baita dedikazio bereziko lanaldiarena ere.

Lege Organikoa 8/2012 abenduaren 27koa *“de medidas de eficiencia presupuestaria en la Administración de justicia que modifica el régimen de vacaciones y permisos del personal funcionario de dicha Administración,”*

Herri Administrazioen Estatu Idazkaritzaren 2013ko abenduaren 23ko Ebazpena, Sektore Publikoko Zor Komertziala Kontrolatzeari buruzko abenduaren 20ko 9/2013 Lege Organikoaren bidez sorturiko norberaren kontuetarako egun bat gehiago gozatzeko araudia ezartzen duena eta Estatu Idazkaritzaren 2012ko abenduaren 28ko Ebazpena egokitzen duena.

Era berean, 2010eko irailaren 14an, Euskal Herriko Agintaritzaren 177 zk.ko Aldizkarian argitaratu zen abuztuaren 31ko 223/2010 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren Zerbitzupeko Funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituena eta Bulego Judiziala aldatzeko IV. Aikordia (Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren eta CCOO, CSI/CSIF, LAB eta UGT Sindikatuen artekoa) onartzen duena.



Herri Administrazioen Estatu Idazkaritzaren 2013ko abenduaren 23ko Ebazpena, Sektore Publikoko Zor Komertziala Kontrolatzeari buruzko abenduaren 20ko 9/2013 Lege Organikoaren bidez sorturiko norberaren kontuetarako egun bat gehiago gozatzeko araudia ezartzen duena eta Estatu Idazkaritzaren 2012ko abenduaren 28ko Ebazpena egokitzen duena.

Justizia Administrazioiko Zuzendaritza honek, apirilaren 15eko 188/2013 Dekretuak, Herri Administrazio eta Justizia Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzekoak, 20. artikuluan emaniko eskumenaz baidatuz, eta aurretiazko Botere Judizialeko Kontseilu Orokorren aldeko txostena eta sindikatuekin negoziatuz,

EBATZI DU:

Lehena.- Aplikatzekoa den langile- eta lurralde-eremua.-

Ebazpen hau Euskal Autonomia Erkidegoan destinoa duten Justizia Administrazioaren zerbitzuko Funtzionario guztiei aplikatuko zaie.

Bigarrena.- Urteko lanaldiaren iraupena eta lanaldi mota.-

1.- Urteko lanaldia urtarrilaren 28ko 4/2014 Dekretuak finkatutakoa da (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioiko funtzionario, estatutupeko eta lan-kontratuko langileek 2014. urtean izango duten urteko lanaldia ezartzen duena). Urteko lanaldi hori aurtengo urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte dago indarrean.

Lanean benetan jardun beharreko urteko lanaldi maximoa 1592 ordukoa izango da.

2.- Urteko lanaldia benetakoa lanekotzat hartuko da; hortaz, langilea bere lanpostuan egongo da dagokion egutegian ezartzen den ohiko lanaldiaren hasieran eta lanaldia amaitu arte.

Hirugarrena.- Eguneroko lanaldia, ordutegia eta malgutasuna.

1.- Honi erantsita datorren I. Eranskinean jasota dagoen egutegian zehaztutako iraupena izango du eguneroko lanaldian 2013. urtean.

2.- Ordutegiaren zati finkoa, derrigor lanpostuan egon beharreko denbora, bost ordu eta hogeita hamar minutu izango dira egunero; goizeko zortzi eta erdietatik hasi eta ordu bi eta erditara bitartean egitekoak, astelehenetik ostiralera.

3.- Ordutegiaren zati malgua 07:30 - 17:00 bitartean har daiteke. Ordutegiaren zati hori ordutegiaren zati finkoak eta zati malguak osatzen dute, harik eta eguneko lanaldia osatu arte.

Laugarrena. Lanaldiaren barruko etena.

1.- Lanaldiaren barruan, orokorrean, hogeita hamar minutuko (edo zati proportzionala) lan-etena egin ahal izango da, lanaldia hasi eta bigarren ordutik aurrera. Eten horixe bakarrik egin daiteke egunean, eta lan eginda bezala hartuko da. Etena ezin da diruz konpentsatu, ez eta pilatu ere, gero hartzeko. Hori horrela dela, lantokiko arduradunak



hartu behar du erantzukizuna herritarrei kasu egiteko zerbitzua, eta lantoki bakoitzeko funtzionamendu-baldintza orokorrek, beren horretan, ondo, jarrai dezaten; beharrezkoa bada, ekitatea gogoan, atsedena hartzeko txandak ere erabaki ditzake.

2.- Lanaldi murrizketa baliatzen dutenek eten bakarra izango dute eguneko lanaldian; baimenduta daukaten murrizketa-modalitatearen proportzioan.

3.- Giza Baliabideen zuzendariak 2009ko otsailaren 4an emandako Jarraibideen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren Zerbitzuko Funtzionarioen lanaldia eta ordutegiak kontrolatzeko sistemari buruzkoek, xedatutakoari jarraiki lanaldian egunero egiten den etenaldi horretan ere aplikatu behar da lanpostutik irteten den eta bertara sartzen den bakoitzean fitxatu beharra.

Bosgarrena.- Jendeari eta profesionali kasu egiteko ordutegia.

1.- Organo, bulego eta zerbitzuetan, herritarrei nahiz profesionali kasu egiteko ordutegia 09:00:00-14:00 bitartean da; betiere, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 188. artikulua jendeari kasu egiteko ezartzen duen modua errespetatuz. Ordutegi hori lantokien kanpoan argi eta garbi adierazi behar da, nabarmenduta.

2.- Hala eta guztiz ere, herritarrei kasu egiteko zerbitzuetan eta dokumentuak aurkezteko erregistroetan, 09:00:00 eta 15:00 bitartean ere herritarrei behar bezala kasu egiteko nahiko langile badagoela ziurtatu beharko da, behar diren txandak eginda.

3.- Halaber, lekuren batean herritarrei kasu egiteko zerbitzua eta dokumentuak aurkezteko erregistroa toki bera badira, multzo bakarra bailiran egin beharko dituzte txandak zerbitzu bateko eta besteko funtzionarioek.

Seigarrena.- Ordutegi bereziak.

Abenduaren 23ko 19/2003 Lege Organikoak aldatuta dagoen uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren IV. Tituluko II. kapituluak aukera ematen duenez, jar daitezke ordutegi bereziak lanpostu-zerrendetan, lantoki jakin batzuetarako, zerbitzu edo organo juridikzionalen arabera komeni bada.

Zazpigarrena.- Larunbatetan lan egitea.

1.- Larunbatak ordutegi malguaren zatitik kanpo daude, Euskadin bulego judizialak itxita egoten dira-eta larunbatetan. Halere, arau horren gainetik dago Botere Judizialaren Lege Orokorraren 182.1 artikulua bigarren paragrafoak agintzen duena, alegia, araubide bidez larunbatak lan-egun izenda daitezkeela, egintza judizialetarako.

2.- Araubide horrek ezingo ditu oztopatu larunbatetan eman beharreko zerbitzuak eta organo juridikzionalen zerbitzuak edo guardian egon behar duten justizia-administrazioaren beste zerbitzuak (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 501. artikulua xedatuta).

**Zortzigarrena.- Premiazko eginbideak**

1.- Premiazko eginbideak baldin badaude, atzeratu ezin direnak, Bulego Judizialeko arduradunek idatziz banatu beharko dituzte horretarako egoki iruditzen zaizkien aginduak eta jarraibideak, eginbide horiek ordutegi malgua duten funtzionarioek egingo dituztela bermatuta gera dadin, martxoaren 1eko 615/2012 Aginduaren 7. artikulua ezartzen dituen konpentsazioak aplikatuz, agindu hori baita laneko jardun orokorraren iraupena arautzen duena, urte osoa kontatuz, bai eta dedikazio bereziko araubidean ematen diren lan-jardunak ere, Justizia Administrazioaren zerbitzura lan egiten dutenen kasuan.

2.- Jardun horiek ordutegi-kontrollean azalduko dira, dagokion fitxaketen bitartez.

Bederatzigarrena.- Familia eta lana bateratzea

1. – Salbuespen gisa, eta interesdunak Justizia Administrazioako Zuzendaritzari eskaria idatzia egin ondoren, adierazitako Zuzendaritzak baimena eman ahal izango die familia eta lana bateragarri egiteko premiari erantzuteko egun bakoitzean ordutegi finkoaren zati bateko ordu bat aldatzeko ondoren azalduko diren adin-tarteetako legezko seme alabak dituzten aita, ama eta tutoreei, baina honako hauek dituztenei ere:

- a) Hamabi urtetik beherako haurrak
- b) Adin-mugarik gabe, aurreko ahaideak, baldin urritu fisikoak edo psikikoak baldin badira.

2.- Baimen horri dagokion igoera lanaldiaren zati malguan aplikatuko da, harik eta, orotara, egunekorako ezarritako lanaldia osatu arte.

Hamargarrena.- Norberaren kontuetarako baimena

1.- Justizia Administrazioako langileek norberaren kontuetarako hiru egun gehi laugarren egun bat izango dituzte, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuko 48.k) artikuluan xedatutakoaren ondorioz (abenduarien 19ko 9/2013 Lege Organikoaren laugarren xedapen gehigarrian emandako idazkeraren arabera), zerbitzuan emandako urte oso bakoitzeko; bestela, urtebete baino gutxiago egin badute lanean, proportzioan dagozkien egunak egokituko zaizkie oporretarako.

2.- Norberaren gaietarako egunak jardunaz gainezko egunaei edota oporretarako eguneei gehitu dakizkieke.

3.- Egundak horiek 2015eko urtarrilaren 15a arte har daitezke, baina 2014 eta 2015ean hartzeko egunak galdu gabe.

4.- Egundak hartu baino 10 egun lehenago, gutxienez, egin beharko da eskaera, eta eskabidearekin batera Bulego Judizialeko arduradunaren, fiskalburuaren, edo Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeko zuzendari edo zuzendariordearen txostena aurkeztu beharko da, zerbitzu-premiak beteko direla bermatuta egon behar baitu.

**Hamaikagarrena.- Urteko lanaldiaren gaineko gehiegizko orduen konpentsazioa.**

1.- Leku bakoitzeko jai-egunen eta hartutako oporren banaketaren arabera, urteko lanaldia osatu arte geratzen diren egunak, lanaldiaren gaineko gehiegizko orduetan hartuko dira.

Hiru egun solte hartu ahal izango dira; gainerakoak, denak batera edo bi zatitan.

Soberazko orduak ordutegi malguaren kontura hartuko dira. Gutxienez, ordu bat hartu behar da.

2.-Jardunaz gainezko egunak norberaren gauzetarako egunei edota oporretarako egunei gehitu dakizkieke.

3.- 2015eko urtarrilaren 15a arte har daitezke, baina 2014 eta 2015ean hartzeko egunak galdu gabe.

4.- Eskabideak Bulego Judizialeko arduradunaren, fiskalburuaren, edo Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeko zuzendari edo zuzendariordearen aldeko txostena jasota beharko du hilabete aurrez, zerbitzu-premiak beteko direla bermatuta egon behar baitu.

5.- Urteko lanaldiaz gain egindako orduen konpentsazioa denez, hartzekotan, ezinbestekoa izango da lanaldiaz gainezkoa direla egiaztatzea, orduen kontrola egiteko mekanismoen bitartez, **ez beste inola**.

6.- Eszendentzia edo norberaren gauzetarako baimena izanez gero, egoera horietan emandako denbora ez da soberazko ordutzat joko.

7.- Lan-jardun murriztua daukaten langileek bene-benetako urteko lan-jarduaren araberrako proportzioan hartuko dute gainezko denbora hori.

Ordutegia kontrolatzeko bereziki ezarritako mekanismoen bitartez egiaztatutako gainezko orduak besterik ez dira konputatuko.

8.- Urtebeterako baino gutxiagorako kontratatutakoek edo bere lana ez dutenak urte guztian Euskadin betetzen, dagokion proportzioan izango dituzte gainezko egunak, horretarako ezarritako ordu-kontrolako mekanismoen arabera.

Bitarteko funtzionarioek ere har ditzakete dagozkien gainezko egunak, beren izendapenaren barruan, baina ezingo dituzte metatu kargutik kendu ondoren hartu ahal izateko.

Hamabigarrena.- Oporrak.

1.- Justizia Administrazioarako lanean ari direnek eskubidea izango dute 22 opor-egun ordaindu hartzeko, zerbitzuan emandako urte oso bakoitzeko; bestela, urtebete baino gutxiago egin badute lanean, proportzioan dagozkien egunak egokituko zaizkie oporretarako.

2.- Aukera dago oporrak zatikatuta hartzeko, gutxienez bost egun natural, segidan.



Oporrak kontatzeko, larunbatak ez dira kontuan hartuko; ez baldin bada behintzat, ordutegian ezarri dela larunbatak ere lan-egunak direla-

3.- Urte naturalaren barruan eta hurrengo urteko urtarrilaren 15a baino lehen hartu behar dira derrigor.

Litekeena da oporrak ez hartzea dagokien urtean. Adibidez, langileren batek 2013ko oporrak ezin izan baditu urte horretan hartu amatasun-lizentzia daukalako edo gaixotasuna duelako, senda-agiria jaso ondoren hartuko ditu, 2013an berriz lanean hasi aurretik.

Amatasun-lizentziaren kasuan, lizentzia eta oporrak aldi berean baldin badatoz, oporrak bertan behera geratuko dira, eta lizentzia amaitu ondoren hartuko dira. Halatsu, oporrak etenda geratuko dira baldin ospitalean geratu beharra egokitzen bazaio langileari edo gaixotasunagatiko baja. Halakoetan, medikuak senda-agiria eman ondoren hartu beharko ditu, eta lanean hasi aurretik, alde aurreko eskaera eginik, zerbitzuko premiek horretarako aukera ematen badute.

Oporrak ezin dira konpentsatu diruz, ez osorik eta ez zatiz.

4.- Derrigorrez hartuko dira bitarteko langileen izendapena amaitu aurretik edo aldi baterako kontratuak (ordezkapenak nahiz lan-pilaketenak) amaitu aurretik. Langile hauek ez badituzte sorturiko oporrak eskatzen, Justizia eta Administrazioako Zuzendaritzak, interesdunari aurretik jakinarazita, opor horiek hartzeko egunak erabaki ahalko ditu.

5.- Hona opor-egunetarako gomendio batzuk:

Bulego Judizial, Fiskaltza, Justizia Administrazioaren Zerbitzu eta Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundearen zerbitzuaren premia behar bezala beteta dagoela joko da baldin plantila organikoa osatzen duten lanpostuen ehuneko hirurogei eta hamarra beteta baldin badago.

Hortik kanpo geratzen da abuztua. Abuztuan, dena delako plantilla organikoa osatzen duten lanpostuen ehuneko hogeita hamar egon daiteke beteta, gehienez ere.

Zenbait zerbitzutan, alabaina, abuztuan bertan egongo diren langileen ehuneko % 40koa izango da; hain zuzen, hauek: Bake Epaitegiak, Epaitegi Mistoak, Fiskaltzak, Zerbitzu Erkide Orokorrak edo Laguntzekoak, Exekuzioko Bulegoak, Herritarren Arretarakoak, guardian ez dauden Instrukzio Epaitegiak, Adingabeen Epaitegiak, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Epaitegiak, eta Erregistroa eta Banaketa..

Guardian dauden Instrukzio Epaitegien, Erregistro Zibilen eta Auzitegiko Mediziko Euskal Erakundearen kasuan, bertan egon behar duten langileen proportzio minimoa berbera da urte guztian: % 60.

Hala eta guztiz ere, abuztuan bertan egon behar duten langileen portzentajea gutxitzeko aukera badaukate idazkariak, fiskalburuak edo zuzendariak, zerbitzuaren premia beteta geratzen baldin bada.

Mediku Forentseen kidegokoen kasuan, ematen duten zerbitzuari arreta emateko moduan eta premiak asetzeko moduan antolatu behar dituzten oporrak; horretarako loteslea izango da Auzitegiko Mediku Klinikako zuzendariordeak egindako proposamena.



6.- Oporretarako eskabidearekin batera idazkariaren, fiskalburuaren, edo zuzendariaren txostena aurkeztu beharko da, zerbitzu-premiak beteko direla bermatuta egon behar baitu. Txostena kontrakoa bada, arrazoitua izan beharko du..

Egunak hartu baino hilabete lehenago egin beharko da eskaera. Urriaren 31 iritsi eta opor-eskaerarik egin ez bada, Justizia Administrazioiko Zuzendaritzak oporrak hartzeko egunak erabaki ditzake, aldez aurretik interesduna jakitun ipinita.

7.- Lehentasun-irizpideak.- Opor-txandetan interesek talka egiten badute, lehentasun hauek aplikatuko dira:

1. Organo, bulego edo zerbitzu horretan, interes-talka horrexegatik aurreko urtean txandarik hartu ez zuena.
2. Antzintasuna organo judizialean.
3. Maila.

Urte batean lehentasun-irizpide horiek baliatzen dituenak ezingo ditu berriz ere erabili hurrengo urtean.

Hamahirugarrena.- Baimenak eskatzea eta hartzea.

1.- Baimenak eta oporrak hartzeko ezinbesteko baldintza izango da Bulego Judizialeko arduradunaren, fiskalburuaren, edo Auzitegi Medikuntzako Euskal Erakundeko zuzendari edo zuzendariordearen aldeko txostena jasotzea, zerbitzu-premiak beteko direla bermatuta egon behar baitu.

2. Baimena hartzeko azken eguna 2015eko urtarrilaren 15a izango da.

3.- Inongo baimenik ezin da konpentsatu diruz, ez osorik eta ez partez.

4.- Norberaren kontuetarako orduak, soberazko orduak eta oporretakoak kalkulatzeko, 7 ordu eta 30 minutuko lanaldia hartuko da oinarri. Baimen horietatik geratzen diren soberazko orduak batu egingo dira. Batuketa horren emaitzak 7 ordu eta 30 minutu egiten badu, baimen-egun bat hartuko da. Batuketaren emaitza iristen ez bada 7 ordu eta 30 minutura, ordutegi malguan hartuko da denbora hori, gutxienez ordu bateko tartea hartuta.

Hamalagarrena.- Lanaldia eta ordutegiak betetzen direla kontrolatzea.

1.- Indarrean dagoen legedia garatzeko, Giza Baliabideen zuzendariaren 2009ko otsailaren 4ko Jarraibideak, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioaren Zerbitzuko Funtzionarioen lanaldia eta ordutegiak kontrolatzeko sistemari buruzkoak, eman ziren. Jarraibide horrek kontrol-baliabide mekanizatuak erabiltzeko eta gorabeherak justifikatzeko arau zehatzak jartzen ditu, eta baliabide mekanizaturik ez daukaten egoitza judizialetan jarri beharreko kontrol-sistema ere zehazten du.

2.- Ordutegia ondo betetzen den jakiteko ohiko kontrolaz gain, Bulego Judizial eta Fiskaleko zuzendaritzak aukeran izango du, baita ere, langileak bertan dauden ikusteko kontrol konkretuak edo ̈oiunturalak egiteko, egoki iruditzen zaion eran; horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako organo judizialetara joateko araubidea finkatuko du, arlo zehatz horretarako jarritako lanaldia eta ordutegiak behar bezala betetzen direla ziurtatzeko.

***Hamabosgarrena.- Lan-ordutegia ez betetzea.***

1.- Inongo arrazoirik gabe ordutegia betetzeari uzteak, ez fitxatzeak edota funtzionarioentzako jarritako bestelako ordutegi-kontrolak ez betetzeak indarrean dagoen araudian jasotako zehapen-araubidea aplikatzea ekarriko du.

2.- Aurreko paragrafoan xedaturikoa alde batera utzi gabe, behar bezala justifikatzen ez diren absentiengatik eta puntualtasun ezagatik eta lanean egon beharrari huts egiteagatik, dagokion zati proportzionala kenduko zaio soldatetik langileari, aurrez idatzi bidez jakinarazita, Botere Judiziarlaren Lege Organikoaren 500.6 artikuluan arauturikoaren arabera. Deskontu hori egin aurretik, gehienez hamabost eguneko epea emango zaio funtzionarioari, jakinarazpena jasotzen duenetik, idatzi baten bidez alegazioak aurkezteko.

Hamaseigarrena.- Justiziako Langileen Ataria.

Ebazpen honetako oporraldi eta baimenak ez dira indarrean izango harik eta Justiziako Langileen Atarian ikusten diren arte.

Hamazazpigarrena.- Xedapen indargabetzailea.

Indargabe geratuko dira ebazpen honetan xedatutakoaren kontra edo aurka dauden maila bereko edo baxuagoko arau guztiak.

Hamazortzigarrena.- Indarrean sartzea.

Ebazpen honek 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, eta indarrean jarraituko du hurrengo urteetan, bera aldatzeko edo baliogabetzeko maila bereko edo altuagoko beste batek ordezkatu arte.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 6a.

Vitoria-Gasteiz, 6 de febrero de 2014



JON ARTURO URIARTE UNZALU
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE LA ADMINISTRACIÓN DE JUSTICIA